

Talde-lana ebaluatzeko errubrika

Ebaluatutako taldea: _____

Errubrika betetzen duenaren izena: _____

| MAILA | 4 Bikain | 3 Oso ongi | 2 Nahiko | 1 Gutxiegi |
|---------------------------------------|---|---|--|---|
| Informazioa Antolatzeko Plana | Taldeak plan argi bat garatu du informazioa bildu ahala hura antolatzeko. Kide guztiak gai dira burutu beharreko lanen antolaketa plana azaltzeko. | Taldeak plan argi bat garatu du jarduera edo eginkizunaren amaieran informazioa antolatzeko. Kide guztiak gai dira plan hori azaltzeko. | Taldeak plan argi bat garatu du informazioa bildu ahala hura antolatzeko. Kide guztiak gai dira planaren gehiengoa azaltzeko. | Taldeak ez du informazioa antolatzeko plan argirik eta/edo bere kideak ez dira plana azaltzeko gai. |
| Prozesuaren ezaguera | Kide bakoitza gai da azaltzeko zer lan burutu behar dituen taldeak, horietatik zeintzuk egin behar dituen berak, eta noiz. | Kide bakoitza gai da azaltzeko zer lan burutu behar dituen berak. | Kide bakoitza gai da azaltzeko, bere taldekideen languntzarekin, zer lan burutu behar dituen berak. | Kide batek edo gehiagok ezin dute azaldu lanaren zer atal burutu behar duten beraiek. |
| Taldearen Denboraren Kudeaketa | Taldeak lan guztiak barne dituen zentzuzko plangintza prestatu du, lanaren hainbat atal noiz bukatuko liratekeen deskribatuz (hala nola, plangintza, ikerketa, lehen zirriborroa, azken zirriborroa). Taldeko kide guztiak dira plangintza azaltzeko gai. | Taldeak plangintza prestatu du, lanaren atal gehienak noiz bukatuko liratekeen deskribatuz. Taldeko kide guztiak dira plangintza azaltzeko gai. | Taldeak plangintza prestatu du, lanaren atal gehienak noiz bukatuko liratekeen deskribatuz. Taldeko kide gehienak dira plangintza azaltzeko gai. | Taldeak heldu baten laguntza behar du lanak planifikatzeko eta/edo taldeko kideetako batzuk ez dira plangintza azaltzeko gai. |

